kirol ...eta kitto!
873 zkia.
2014-I-10

# Gabon Zaharreko urteroko hitzordua




orain duzu aukera!
aek matrikula zabalik
www.aek.org
Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA

# IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzu!

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguzu!











IRAZABAL
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**
**Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR -** Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KAFE-TXANO.- Kafea iragazteko telazko txanoa. *"Turkian ez dabe kafia kafe-txanuan irazten".*
KAFESNE.- Kafea eta esnea nahastuta. *"Oin bixok kafesnia hartuko dogu".*
KAFIA TA ESNIA / KAFITESNIA.- Kafesnea. Eibarren horrela erabiltzen da gehiago. *"Eibarko gosarixa, kafia ta esnia zortziretan".*

# ASTEAN ESANAK

"Euskal telebista izena daraman medio batean lan egiten baduzu, nahiz eta gaztelaniazko katean izan, nola bete dezakezu ondo lana euskarak berarekin daramatzan jakintza eta kultura ulertzeko gai ez bazara? Ez dago presiorik euskara jakin gabe sartu den pertsonala euskalduntzeko"
(Elixabete Garmendia, EITBko kazetaria)

"Korrika zoazela lo geratzea ez da zaila, 40 ordu daramatzazunean. Beldurrak erakusten dizu non dauden zure mugak eta ona da gorputzak eta mendiak estaen dizutena entzutea. Heriotza oso presente dago halako abenturetan"
(Kilian Jornet, mendi korrikalaria)

"Hainbat modu daude tontorrera iritsi zarela egiaztatzeko, eta ez zait horren zaila iruditzen argazki bat edo lekuaren deskribapen zehatz bat egitea. Gailurrera bakarrik iritsi eta kamera galtzea behin gerta dakizuke, baina bitan... ez dakit ba. 20 urtetan niri sekula ez zait gertatu"
(Alberto Iñurrategi, mendizalea)

"Foballean gizonak hobeak badira, jokatzen denbora daramatelako da. Ameriketako Estatu Batuetan, adibidez, foballa emakumeen kirola da eta arrakasta handiagoa du emakumeen artean"
(Julen Castellano, EHUko ikertzailea)



Klub Deportiboak antolatutako hamarretakoa.

## Urte Berri On danori!



Gure Esku Dago Ixuan.

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.100 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*


Karmelo Urdangarin

## Komunikazioak

**Azkeneko hamarkadetan Eibarren eta haren eragin-eremuan komunikazioak nabarmen hobetu dira.** Ez da horrenbeste denbora pasatu txartel-zulatzaileak bagoi batetik bestera kanpo-pasarela batetik pasatzen zirenetik; Maltzagako estazioak, Gasteiz edo Zumarragatik zetozen trenen itxaronaldi amaiezinen jatorria, lotune klabea izateari laga zion 1969. urtean. Estazio horren egoeraren aurrean, Debako behargin batzuk, egunero Eibarrera zetozenak, garraio-kooperatiba bat jarri zuten martxan; Bergarako Idarretari autobus bat erosi zioten, VI991, eta ironiarekin, "sputnik" deitu zioten, errusiarrek jaurtikitako lehen satelite artifiziala. Autobus horrek La Salleko ikasleak eramaten zituen, joan-etorrian. Gaur egun, egoera erabat desberdina da; euskotreneko bagoiak nahiko erosoak dira eta estazioetako informazioa, Elgoibarkoan izan ezik, nahiko ona da. Baina batez ere ordutegiak betetzen dira, eta hori oso garrantzitsua da. Horrez gainera, ohikoak ez diren bestelako zerbitzu batzuk ere antolatzen dira, esate baterako Debako hondartzara edo herrietako jaietara joateko, inguruko herrietara joateko autobus-zerbitzuez gain. Horri guztiari esker, denboran hurbil ditugun egoera horiek, nabarmen aldatu dira.

## Gurasoak Martxan hillaren 21etik aurrera

**Udaleko Gizartekintza Saillak Gurasoak Martxan programiaren zortzigarrenediziñua** abiatuko dau hill honetan, Drogamenpekotasunen kontrako IV. Planari jarraittuta eta herriko ikastetxietako Guraso alkartiekin eta Baikara Gipuzkoako Ikaslien Gurasuen Federaziñuarekin alkarlanian. Urtarrillaren 21-ian hasitta, hamaika hitzaldi eskinduko dittue ikastetxe hónetan: San Andres, Urkizu, La Salle-Isasi, Aldatze, Arrateko Andra Mari, Iturburu, Itzio, Ignazio Zuloaga institutua, Aldatze, La Salle-Azitain eta Mogel. Hitzaldixetarako gaixak, barriz, orotarikuak dira: umiak zergaittik esaten dittuen gezurrak, zelan transmitidu ohittura osasungarrixak, seme-alaben galdereri modu egokixan zelan erantzun, familixa barruko komunikaziñua zelan hobetu, ardura zelan indartu eta sare sozialen gaiñian gurasuak jakin biharrekuak. Hitzaldi guztiak irekixak izango dira eta, beraz, gurasuak edozeiñ ikastetxera juateko aukeria izango dabe. Lehelengo hitzaldixa (21ekua) Arrateko Andra Mari ikastetxian izango da, 14.30xetan. Gaiñontzeko hitzaldixak 18.30xetan eskinduko dittue.




## Manifestaziñorako autobusa

**Bilbon bixar "Tantaz Tanta itsasoa gara" izenburuari jarraittuta egingo dan** manifestaziñora juateko autobusak Eibartik, Ego Gaiñetik 16.00etan urtengo dira. Interesa dakenak Deportibo, Beleko eta Buenos Aires tabernetara juan leike izena emotera. Manifestaziñua 17.30xetan hasiko da eta olatu bi osatzeko asmua dago, bata La Casillatik abiatuta eta bestia, barriz, udaletxetik abiatuta. Ondoren, 18.30xetan bixak bat eginda itsasua sortuko dabe (tantak euro batian Deporren, LAB-en egoitzan eta Belekon erosi leikez). Bilbon goizeko 11.00etan hasiko dira manifestaziñuarekin lotutako ekitaldixak, Areatzan: zanpantzarrak, bokatak, barra, materixala, erakustaldixa, tantarikaturak, enkantia, zozketia, puzgarrixak, rokodromua, umiendako jolasak eta taillarrak, Puski eta Txurruski pailazoak Ane eta piratekin parrandan, Petti, Francis, Gozategi, Kokein akustikoa, Occhi di Farfalla, Uluka, Hesian akustikia, Xabi Solano&Zigor Dz, Tximeleta, Gose, Xutik eta Kaotiko.




## Kirola Familian eta Haur Parkia

**Gabonak pasauta be, Kirola Familian ekimena martxan egongo da** urtarrillaren 11, 12, 18, 19, 25 eta 26xan, 17.30xetatik 19.30xetara Ipurua kiroldegixan bi eta bost urte bittarteko umiak eta gurasuak jolastu deixen. Eta Astelenako Haur Parkia urtarrillaren 11, 18 eta 25ian zabalduko dabe, 11.00etatik 14.00xetara eta 17.00etatik 20.30xetara.



# Gureak-ekuendako bazkarixa


*Auzokoak alkartekuak prestauko dabe, urtero lez, bixarko bazkarixa.*
LEIRE ITURBE

**Auzokoak alkartekuak, urtero lez, Errege eguneko hurrengo zapatuan bazkarixa** antolatu dabe Gureak lantegikuendako. Ehun bat lagun alkartuko dira bixar Erdi Bana eta Urkusu-Gain soziedadietan bapo bazkaldu eta herriko alkarte eta taldiak emondako oparixak jasotzeko. 1981ian ekin zetsen Urkizu eta inguruko soziedadiak osatzen daben Auzokoak alkartekuak ekitaldixa antolatziari eta urtero jai egun haundixa izaten da Gureak-ekuendako.



## Ahozko ondareari buruzko bideua interneten

**Ahotsak.com eta Badihardugu alkartiak Eibarko** ahozko ondareari buruzko bideo laburra egin dabe, jende nagusixaren kontakizunak eta antziñako eta gaur egungo Eibarko argazkixak tartekatuta. Gure herrixaren iragana gogoratzeko aukera paregabea eskintzen dau lanak. Bideo dokumentala ahotsak.com webgunian eta Youtuben, Ahotsak-en kanalian ikusi leike.

## autuan




### TRIO MEDIANOCHE ETB1-IAN

**Abenduaren 20xan Coliseo antzokixan Trio Medianoche taldiak eskindutako kontzertua grabatzen egon ziran eta bixar (zapatua) 22.00etan emitiduko dabe ETB1ian, "Trio Medianoche Eibarren" izenburuarekin.**

### KANTABRIAREN BATZARRA

**Domekan 11.30xetatik aurrera urteko batzarra egingo dabe Eibarko Kantabriako Etxeko bazkidiak, alkartiak Jardiñeta kalian dakan egoitzan. Ahalik eta bazkide gehixen bertaratzeko dei egin dabe alkarteko ordezkarixak.**

### HITZALDIXA

**Udalak antolatuta, Eurosigno enpresako Gonzalo Sanabriak hitzaldixa emongo dau hillaren 15ian, eguaztenian, 19.00etan Portalean. "La patente: herramienta para la innovación" izenburuari jarraittuta jardungo dau berbetan Sanabriak.**







## Latinamerikako musikaren omenezko txotxa

**Iruki sagardotegixak hillaren 24an egingo daben txotx berezixan aurten Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas taldieri omenaldixa** egingo detse. Trikitilarixak lagundutako kalejiria eginda, 19.00etan hasiko dabe programia eta, jarraixan, herri kirol erakustaldixa egingo dabe Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" eta Dioni Kortinak. 20.00etan sagardo dastaketia hasiko dabe eta afarixa 21.00etan hasiko da. Menu bi egongo dira aukeran: sagardotegikua (bakillau tortilla, bakillaua, txuletia edo txarri saiheskixa edo oillaskua) eta gaztiendako menua (bakillau tortilla, txarri saiheskixa edo oillaskua). Izena emoteko 943-206844 telefono zenbakira deittu leike.



*Voces y Cuerdas taldiari omenaldixa egingo detse Iruki sagardotegiko txotxian.* Leire Iturbe




## Hiru Erregien kabalgatia

**Urtero lez, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregiak bisitan euki genduazen** hillaren 5ian. Dragoi ikusgarri batek apaindutako karroza gaiñian herriko kaliak ziherkatu baiño lehen, Ipurua kiroldegixan edarto pasau eben Ipurua Gimnasia Erritmika, Ipurua Dantza Garaikidia eta Eibarko Balleta taldietako erakustaldixak ikusten.

## Geltoki Market

**Estaziño kalian Geltoki Market bigarren eskuko azokia egon zan martxan 2013ko azken egunian.** Bertan ehun postutik gora egon ziran, denetarik saltzen. Eta hillaren 5ian Hiru Erregiak goizian bisitan egon ziran Ibarkurutzen eta azokia be ipiñi eben hainbatek, eskintza berezixekin. Zona Diez alkartekuak pozik dagoz Gabonen inguruan antolatu dittuenak euki daben arrakastia dala-eta.



Funeraria·Ehorztetxe Mugica
EIBAR
ELGOIBAR
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J
BIDAIA ASEGURUAK
R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza
Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13
943 12 05 30 / Faxa. 943 70 28 87
RAC VASCO NAVARRO
ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

GASOLEOEN BANAKETA
estación de servicio kantoi eibar
ZERBITZU ONENAREN SARIA
20.000 L.
2.000 L.
Otaola etorbidea, 13 -Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77
GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA

# TEEN AJEAK

**_Guraso eibartarrak izan arren, hemendik kanpora bizi izan ditu bere 21 urteak musikari gazte honek. Hala ere, Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin bat egin zuenez geroztik, gutxienez urtean birritan Eibarrera etortzen da EGO-k egiten dituen topaketa berezietan parte hartzeko. Gabonak aldean izan da horietako azkena._**





Nerea Elizaga
(EGO-KO KIDEA)

## "Orkestra batekin jarduteko aukera gutxi izaten da"

***- Noiz hasi zinen biolontxeloa jotzen?***

Zazpi urterekin, 1999an Haroko kontserbatorioan hasi nintzen, orduan han bizi ginen-eta. Hirugarren urtean Logroñora joan ginen bizi izatera eta hango kontserbatorioan jarraitu nuen ikasten. Erdi maila 19 urterekin amaitu eta goi maila Iruñean ikasten dihardut, azken urtea falta zait amaitzeko.

***- Eta zergatik biolontxeloa?***

Lagun baten amak animatuta, kontserbatoriora joan ginen han zer erakusten zuten bertatik bertara ezagutzeko. Berez biolina ikasteko asmoa nuen, baina horretarako tokirik ez zegoen eta, horregatik, biolontxeloa ikasten hasi nintzen.

***- Musikaz gain besterik ikasten duzu?***

Ingenieritza ikasten hasi nintzen, baina lehen kurtsoan konturatu nintzen musika gustokoago nuela eta, beraz, buru belarri horretan jarraitzea erabaki nuen. Gainera, gaur egun Bolonia planarekin klasera derrigorrez joan beharra dago eta gauza biak batera ikastea oso zaila da. Musikako klaseetara joateaz gain, egunero bospasei ordu sartzen ditut etxean instrumentuarekin praktikatzen.

***- Noiztik diharduzu Euskal Herriko Gazte Orkestrarekin?***

2011tik, baina titular modura 2013an hasi naiz. Oso esperientzia polita da, bestela oso aukera gutxi dagoelako orkestra profesional batekin jarduteko. Urtean birritan Eibarko Hezkuntza Esparruan topaketak egiten ditugu eta oso interesgarria da. Izan ere, zuzendaria bikaina da, irakasleak ere oso onak dira, orkestrako beste lagunekin ederto moldatzen naiz eta, gainera, Eibarren aitxitxa-amama egonda beti aprobetxatzen dut eurekin egoteko.

***- Ikasketak amaitzean zer egitea gustatuko litzaizuke?***

Oraindik ez daukat oso argi, biolontxeloaz gain kantu klaseak ere hartzen ditudalako, agian atzerrian masterren bat ikasi-edo. Orkestra batekin jardutea gustatuko litzaidake, baina badakit gauzak dauden moduan egonda hori oso zaila dela.



## IGOR DE LOS TOYOS IBARROLA

2013ko abenduaren 26an hil zen,
45 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



# II. Miguel Diego Torneoa Eibar Eskubaloiarentzat



*Aner Cardo eta Mikel Zabala kadeteak Euskadiko selekzioarekin izan dira.*

**Maila bat gorago jokatzen duen Errenteriako Ereintzari irabazita,** Eibar Eskubaloiaren lehenengo taldeak Miguel Diego zenaren oroimenezko torneoaren bigarren edizioa bereganatu zuen zapatuan. Eibartarren aldeko hasierako 8-1ekoak markatu zuen partidua eta aurkariak, gerturatuta ere, atzetik joan ziren partidu guztian. Azken emaitza 34-31 izan zen.

Atzo, bestalde, Fernando Fernandezen mutilek Euskal Kopako finalerdia jokatzekoa zuten Ipuruan, Asobal Ligako Bidasoa talde indartsuaren aurka. Neurketa zaila benetan, baina ikusleek gozatzeko modukoa.

**Euskadiko selekzioekin**

Gabon sasoia aprobetxatuz, selekzioen arteko estatuko txapelketak jokatu dira Asturiasen. Hor izan dira harrobiko sei jokalari: jubenil mailako Ander Anabitarte, Mikel Guerra, Jon Iglesias eta Ruben Lopez eta kadete mailako Aner Cardo eta Mikel Zabala. Azken hauen Euskadiko selekzioa finalerdietara iritsi zen eta jubenilena final laurdenetara.

# Ramon eta Muguruza judokak IV. Espainiako Kopan

**Zapatuan Burgosen jokatutako kadete mailako Kopa horretan** 250 mutil eta 125 neska izan ziren parte hartzen. Kalamuako Julen Ramonek (90 kilotik behera) eta Nekane Muguruzak (70etik behera) bosgarren postuan amaitu zuten, bakoitza bere mailan. Muguruzak betiko bideari eusten dion moduan, Julenek progresio handia egin du azken aldian, Nafarroako domina irabazi zuenetik.



*Manu Agirre, Nekane Muguruza eta Julen Ramonekin.*

# Kiroljokoa foball zaletuaren liga berriro martxan

**Behin Gabonetako oporraldia igarota, foball zaletuaren Kiroljokoa ligaren 14. jardunaldia** jokatuko da asteburuan. Ohikoa denez, lau partidu izango dira bihar eta beste hirurak domekan. Asteburuko ordutegia horrela geratuko da: bihar, Durango - Oishi Tankemans eta Esmorga - EzDok (09.00etan), Alkideba - Txoko (10.30) eta Garajes Garcia.com - Areto (12.00); etzi, bestalde, Sporting- Caserio eta Azkena Kalton - Fontaneria Mujika (09.00) eta Iruki - Koskor (10.30).







# Waterpolisten garaipen garrantzitsua Getxon

**Garaipen horrekin sailkapeneko azken postua laga dute** Urbat-Urkotronik-ekoek. Aurkari zuzenaren aurka lehiatu behar zutela jakinda joan ziren Fadurara eibartarrak eta, partidu serioa eginda, 9-12 irabazi zioten Getxori. Zerikusi handia izan zuen emaitza horretan Mikel Basterrikaren itzulerak eta beraren eta Ekhi Sologaistuaren artean lortu zituzten 12etatik 11 gol. Urratsa, beraz, maila berri eta gogorrari eusteko.

# Izotz eskalada ikastaroa otsailaren hasieran

**Otsailaren lehenengo asteburuan (1ean eta 2an)** izotz eskalada ikastaroa eskainiko dute Bielsan, Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta. Honakoak izango dira bertan landuko diren edukiak: materiala eta tresneria, kranpoi eta pioleten erabilera aurreratua, progresio edo aurrerapen teknikak eta segurtasun tenikak. Informazio gehiagorako: www.gmf-fgm.org/main.php



# Txapelketako neurketa domekan Astelenan

**Ezkurdia eta Zabaletak Urrutikoetxea eta Beroizi egingo diete aurre** jaialdiko partidu nagusian. Bikote biendako garrantzi handiko partidua da domekakoa, Aspekoek oraindik partidurik ez dutelako irabazi eta Asegarcekoek bakarra, azken jardunaldian jasotako egurrarekin batera.Ohikoa denez, arratsaldeko 17.00etan hasiko den jaialdian, Apezetxea eta Cecilio eta Mendizabal III.a eta Tolosa bikoteek jardungo duten lehen partiduan, nor baino nor. Jaialdia amaitzeko, azken partiduan Tainta eta Merino Jaka eta Larrinagaren aurka jokatuko dute.



*Zabaletak bere jokoa ziurtatu beharko du garaipena lortu nahi badu.*



# Igerilari gazteenen jai handia

**Bizi izan zutena Ipurua kiroldegian, Gabon Koparen inguruan,** batu ziren 200 igerilari. Benjamin eta alebin mailetako igerilariek euren progresioa erakutsi zuten, amaieran banatu zituzten dominak eta kopak eskuratzeko borrokan.

## berriak

### JON ERRASTI PEÑA

Bihar, eguerdiko 14.00etan, Eibar Foball Taldeko Jon Errasti eibartarraren peña aurkeztuko dute Centro Burgales elkartean. Ekitaldian izango dira De los Toyos alkatea, zuzendaritzako kideak, lagunak, jarraitzaileak eta hainbat Errastizale. Apaizaren bedeinkapenaren ondoren, luntxa eskainiko da.

### AITOR HERNANDEZ

Specialized-Garmar taldeko txirrindularia bigarren izan zen Ormaiztegiko ziklo-krosean. Denboraldi honetan irabazi ez duen proba gutxienetako bat izan zen domekakoa eta amore eman behar izan zuen Larrinagaren aurrean. Asteburu honetan Espainiako txapelketa jokatuko da.


LEGARRE - GAIN, EIBAR



VPO
KOOPERATIBA ERREGIMENEAN

53,30 m²tik 61,87 m²-ra arteko etxebizitzak, garajea eta trasteroarekin

- 2 logelatako etxebizitza-adibidea, garajea eta trasteroarekin (V-5)

Sarrera: **24.717,92 €** gehi BEZ
Hipotekatzeko gainontzekoa: **83.676,37 €** gehi BEZ
Kapital sozialerako ekarpena: **5.422 €**

TELEFONOA: 943 46 22 16 MUGIKORRA: 610 55 45 85

- Garaje plaza behe solairu eta erdisotoan, marraduna
- 20,50 m2-tik 31,31 m²-rainoko superfizieak
- Prezioak 18.523 €-tik hasita (gehi BEZ)
- Entrega data: 2014ko 1. hiruhilekoa

BERMATUTAKO KANTITATEAK

KUDEATZAILEA IGCVS, SA
FINANTZATZAILEA CAJA RURAL DE NAVARRA
ERAIKITZAILEA ANTZIBAR



2013-XII-31

# Eibarko XIX. KIROL SARIAK




Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien edizioa egin zen, oraingoan Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urtean zehar gure herriko kirol taldeak egiten duten lan nekaezina saritzeko. 27 kirolarik jaso zituzten saria, bakoitzak modalitate bat ordezkatuz eta, horiez gain, Euskera eta Sustapen sariak ere eman ziren. Sari Berezia, bestalde, Asier Cuevasentzat izan zen. Eskerrik asko bertaratutako guztiei eskainitako berotasunarengatik eta baita urte osoan zehar kirolaren alde gure herrian diharduten klub eta elkarte guztiei ere.



Sari Berezia
**ASIER CUEVAS**



Euskera Saria
**EIBARKO EUSKAL JOKOAK**



Sustapena
**IK-4 TEKNIKER**



Areto-Foballa
**ION CEJUELA**



Arku Tiraketa
**JESSICA OTS**



Atletismoa
**MARTIN VOUILLOZ**



Automobilismoa
**JORGE RODRIGUEZ & ASIER ARRILLAGA**



Errugbia
**JON UNAMUNO**



Eskia
**JONE SAEZ**



Eskubaloia
**GAIZKA BILBAO**



Foballa
URKO JUBENIL MAILAKOA



Gimnasia Erritmikoa
INFANTIL OINARRIZKO TALDEA



Golfa
JOSE LUIS BILBAO & ANTONIO CAMIÑO



Herri Kirolak
GIPUZKOA POLIKLINIKA



Hiru Txirlo
IBAI DIEZ



Igeriketa
MARINA BEDIA



Judoa
IKER MARTINEZ



Karatea
PAULINO HERNANDEZ



Mendia
JOXEAN LEGARDA



Pilota
IÑIGO RUIZ



Saskibaloia
IMANOL FERNANDEZ & JORGE SIERRA



Silbestrismoa
ASIER FERNANDEZ



Squash
JONATAN ALUSTIZA



Tenisa
IKER ENTRENA



Tiro olinpikoa
UNAX ALCALDE



Triatloia
PELLO OSORO



Txirrindularitza
JULEN DE BLAS



Waterpoloa
DAVIDE CERCHI



Wu-Shu
SERGIO USUA



Xakea
EMILIO JOSE FREIRE

# Asier Cuevas: urteko protagonista




*Cuevasen izena darama herri-lasterketa berriak.*

**Apirilaren 27an Frantzian jokatutako lasterketa irabazita,** 100 kilometroko Europako txapela jantzi zuen eibartarrak. Eibarko Klub Deportibotik irtendako atletak New Balancekin hartu du parte azken denboraldian eta ia zazpi ordu behar izan zituen ibilbidea betetzeko.

Aurretik, baina, beste hainbat marka eta garaipen lortu ditu Eibarko atleta handienak: 2008an, maratoian Espainiako txapelduna izan zen eta bigarren taldeka; 2009an, Espainiako azpitxapeldun maratoian; 2010ean, Espainiako txapeldun taldeka, hor ere maratoian; 2011n, Espainiako txapelduna 100 kilometrotan eta, maratoian, Espainiako azpitxapeldun eta txapeldun taldeka; eta 2012an, laugarrena bai Munduko eta baita Europako 100 kilometrotan.

**I. Asier Cuevas arrakastatsua**

Abenduaren 2an, bestalde, herri-lasterketa berria ipini zuten martxan gurean, hemendik aurrera urtero jarraitzeko asmoz. Zazpi kilometro eta erdi bete zuten helmugaratu ziren 251 korrikalariek.

# Debabarrena-Gipuzkoak agur nesken taldeari

**Berri negatiboen artean, hau dugu aipagarrienetakoa.** Hainbat denboralditan Euskal Herrian eta, batez ere, nazioarteko tropelean erreferentea izan ondoren, UCI formazio hori desagertzera behartuta ikusi zuen bere burua. Tartean Gipuzkoako Diputazioaren dirulaguntzarik gabe geratzea eta Bizkaiko taldeek txirrindulariei egindako eskaintzak izan ziren, Loitek eta Durango Bizkaiarena zehazki. Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza batzordeak kudeatzen duen Debabarrenak, dena dela, mutilen taldearekin jarraitzen du.



*Debabarrena nesken taldeak ibilbide oparoa egin du desagertu aurretik.*

# 40 talde eta 1.500 kirolari

**Gure herriak kirola egiten duten 40 talde federatu ditu, euretako 33 gizonezkoenak (ia 1.300 partehartzaileekin) eta beste zazpi emakumezkoenak (ia 300 kirolarirekin).** Entrenatzaileak, bestalde, 45 dira: 15 probintzia mailakoak, 11 autonomia mailakoak eta 19 estatu mailakoak. Kirol-eskolean 1.420 mutilak eta 687 neskak dihardute. Datu guzti horiek iazko ekainekoak dira.

Talde guzti horien aurrekontua ia 700.000 eurokoa zen sasoi berean. Udalak 63.500 eurorekin lagundu die azken urtean: diru hori txapelketak eta torneoak antolatzeko ematen da eta, baita, garraio gastuetarako. Ipuruako zelaia berrizteko eta Euskal Herriko Itzulia babesteko dirulaguntzak izan dira eta, horrez gain, Eibar Foball Taldeari partida berezia eskaini zaio hainbat urterako "herriaren izena kanporatu eta zabaltzen duelako". Gipuzkoako Diputazioak ere dirulaguntzak eskaintzen ditu, batez ere harrobi lanerako eta emakumeen arloko kirola indartzeko.






# Bosgarren mundu-marka Bihurrirentzat

**Azaroaren 2an ordu bi, 9 minutu eta 35 segundo behar izan zituen, esku bakarrarekin, 3 metro eta 40 zentimetroko perimetroa zuen enborra mozten, munduko marka berria ezarriz.** Aurretik ere munduko beste lau marka ditu Eibarko aizkolariak, euretatik beste hiru esku bakarrarekin: 2'52 perimetrokoa 22 minutu eta 21 segundotan moztu zuen; 3 metrokoa ordubete, 38 minutu eta 39 segundotan (3.163 aizkorakada); eta 3'10ekoa ordubete, 39 minutu eta eta 45 segundotan (3.850 aizkorakada). Esku biekin lan mardulagoa hartu zuen behin eta, 4.797 aizkorakada eman ondoren, 5 metroko perimetroko enborra ebaki zuen hiru ordu, 7 minutu eta 48 segundotan, munduko marka eginez.



# 75. urteurrena prestatzen

**2015ean 75 urte beteko ditu Eibar Foball Taldeak eta,** zuzendaritzak bultzatuta, beste eragileekin batera hainbat ekimen prestatu dituzte, batzuk martxan ipini direnak dagoeneko. Horien artean ditugu Hamaikako Idealarena eta "Eibar Munduan" izenekoa, azken horretan argazki euskarrian Eibar FT-rekin zerikusia duten motiboak biltzeko. Antolatuko diren hitzaldien barruan, bestalde, abenduaren 19an egin zen lehena, "Zelan ikusten garen eta zelan ikusten gaituzten" izenekoa. Han izan ziren, Jesus Gutierrez moderatzailearekin, Ribera, Iturrino eta Karmona jokalariak izandakoak eta Mendilibar entrenatzailea.



*"Eibar Munduan" izeneko ekimenean Eibar FT-rekin lotutako argazkiak bilduko dira.*



## Garate eta Olaizola bakarrak bi hamaikakoetan

**Behin Eibar Foball Taldeko 75. urteurreneko Hamaikako Ideala** hautatzeko prozesua amaituta, azkenean bi hautaketa desberdin egin dira Historiako Hamaikako Onena aukeratzeko. Batean, zaletu eta akziodunek egindako bozketak hartu dira kontuan eta, bestean, jokalarien kurrikuluma, ibilbidea eta kirol merituak hartu dira kontuan, presidente eta jokalari ohien iritziekin. Bi hamaikakoetan bakarrik bi izen errepikatzen dira, Javier Olaizola atzelariarena eta Jose Eulogio Garate aurrelariarena. Sasoi batean, slogan gisa, esaten zen moduan: "Zuloaga Artean eta Garate Foballean". Eurekin batera, beste bost eibartar daude hamaikako horietan: Artetxe, Gisasola, Ormaetxea, Diego eta Pizo Gomez (Artetxe zaletuek aukeratuta eta beste laurak teknikoek).




**Zaletuen Hamaikakoa**




**Teknikoen Hamaikakoa**

# 2013/2014

# EIBAR FUTBOL TALDEA

# Aupa Eibar!




## 2. A Mailako taldea




Jubeniletako Ohorezko Ligako Urko




Jubeniletako Euskal Ligakoa



Kadeteetako Euskal Ligakoa




Kadeteetako Ohorezko Mailakoa

s.d.eibar 1940-2015

# URTE BERRI ON GUZTIOI

## EIBAR FOBALL TALDEKO familiaren partetik




Teknikarien taldea




Emakumezkoen Euskal Ligakoa




Emakumezkoen Lurraldekoa




Kadeteetako 1. mailakoa




Alebinetako taldea




Infantiletako Ohorezko Mailakoa




Infantil Txikiko taldea


CRISTINA LOEDA


BORJA ABASOLO


ERNESTO EZPELETA “BIHURRI”


PEDRO AGIRREGOMEZKORTA



DELTECOKO TRIATLOILARIAK GOI-GOIAN IZAN DIRA EUSKADIKO TXAPELKETETAN



ASOLA BERRIKOAK ONENEN PARE IZAN DIRA HIRU-TXIRLOKO TXAPELKETETAN


RUIBAL ALQUILER DE VEHICULOS TALDEA MAILA IRABAZI ZUEN AZKEN DENBORALDIAN


KALAMUA KLUBEKO DUDOKEK DOMINA ASKO ESKURATU DUTE JOKATUTAKO TORNEOETAN


IPURUA TALDEKO ORDEZKARIAK GIMNASIA ERRITMIKOAN HERRIAK DUEN MAILA EMAN DUTE


EIBARTARRAK TALDEAK BIKAIN AMAITU ZUEN DENBORALDIA 1. ERREGIONAL MAILAN


DIRU ARAZOEK EZ ZIOTEN LAGA CONCEPTO EGILERI LORTUTAKO MAILAN JOKATZEA


KRUZETAREN OMENEZKO XAKE TORNEOA IZAN ZEN HERRIAN JOKATUTAKO GARRANTZITSUENA


IBAI DIEZ


MARKEL ALBERDI


ASIER CUEVAS


NEKANE MUGURUZA


EIBAR RUGBYKO NESKEN TALDEAK PROGRESIO HANDIA EGIN DU AZKEN URTEAN


EIBAR FOBALL TALDEA 2. A MAILARA IGOTZEA LORTU ZUEN L'HOSPITALETEN


MELFUN EIBAR ESKUBALOIAK EUSKADIKO TXAPELA JANTZI ZUEN INFANTILETAN


DEBABARRENA GARAIPENETIK GERTU IZAN ZEN BIDASOAK ITZULIAN


KLUB DEPORTIBOKO MENDIZALEEK EUSKAL HERRIKO ZEHARKALDIA AMAITUKO DUTE AURTEN


TXOKO TALDEA NAGUSI IZAN ZEN FOBALL ZALETUAN ERMUTARREI ERE IRABAZIZ


HERRIKO IGERILARI GAZTEENAK EUREN DOHAIAK ERAKUTSI ZITUZTEN GABON KOPAN


ARMAGIÑAK FOBALL TALDE BERRIA SORTU DA ERREGIONALEAN JARDUTEKO

*Otsaillaren 25ian 96 urte egingo dittu 1918xan Amañako Asoliartza basarrixan jaiotako Miguel Gallastegik. Pelota munduak emon daben haundixenetarikua dogunak hainbat omenaldi eta esker on jaso dittu azkenaldixan: abenduaren 23an Coliseuan aurkeztu eben berari buruz Luis Alberto Aranberri Amatiñok egindako liburutik hasi eta Astelena frontoian hurrengo domekan, abenduaren 29xan, antolatutakuarekin. Egun horretan, hainbat sarirekin batera, hamendik aurrera Katedrala dotoretuko daben bere irudixa ipiñi eben markagailluaren onduan. Holan ba, lehen be agerkari honetan tokixa eskindu badetsagun arren, oingua be ez da gehiegizkua izango Miguelen merituak onartu eta oroimena edukitzeko.*



*Miron eskultoriaren Discoboloaren antza dauka Gallastegik Iparraldian jokatu eban partidu bateko irudi honetan.*

# Eibarrek emon daben pelotari TXAPELDUNA

Buruz-buruko hiru txapel dittu. 1948xan Atano III.a haundixa tronotik kendu eban eta 1950ian eta 1951n Jose Luis Akarregi Eibarren bizitzera geratuko zan lekeittiarrari irabazi zetsan, 22-15 lehelengo eta 22-14 azkena. 1953an Barberitorekin jokatzia tokatzen jakon finalari uko egin zetsan, diru-kontuetan enpresarixuekin ados jarri ez zalako. Biñaka be txapela jantzittakua dogu Gallastegi, Iraetako Txikitorekin Onandia eta Urzelai II.ari 22-18 irabazitta: hori 1941ian izan zan. 1960xan erretiratu zan, 42 urterekin. Indar haundiko atzelarixa izan zan eta askok goguan eukiko dabe oindiok zenbat desafio jokatu zittuan bi pelotariren kontra eta, baitta, beste batek lagunduta hirukotien aurka jokatutakuak. Esaterako, bikotien kontra jokatutako 54 partidutik, 41ian garaille izan zan. Holako batian, Ubilla I.a eta Ubilla II.aren kontrakuan, 500 lagun geratu ziran Astelenara sartu eziñik, Katedrala lepo bete zalako. Gogoan eukitzekua da be Ladutxe eta Haranbilleten aurka Trizioko frontoi irekixan jokatutako partiduan, barriz, 3.000 lagunek jarraittu zeben.

**Beti sasoiko**

Gallastegik Marinoren kontra galdu eban debutian, 36ko junixuan, gerra zibilla hasi aurretik. Amuategi Batalloian soldadu eguala, "entxufiarekin" permiso batzuk aprobetxau eta errebantxan birrittan irabazi zetsan. Bere urterik onena 1945a izan zan -orduan, 10 hillabetian, 104 partidutik, 78 irabazi zittuan-. Atzelarixa izanda be, aurrelari moduan 94 partidu jokatu zittuan, Kortabitarte pixkat baju eta atzian kontrarixorik barik geratu zanian. Lesiñuekin suerte ikaragarrixa izan eban, besagaiñez joten ebala jakinda.



Miguelen ezaugarrixak aittatzerakuan, preparaziñua esan bihar. Astelenara eruaten zittuan berarekin Karral, Etxabetarrak eta Eguren, egu-






**ENRIQUE ORBEA SOROA**

*2013ko abenduaren 29an hil zen*

ESKERRIK ASKO

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAren izenean

# Amatiñoren liburua kalian

Egilliak liburuaren sarrerian diñuan moduan, "Irakorle eibartarrari" izenburupian, "jira eta buelta, eskuartian dozun liburu honek, irakorle, Miguelek bere etxian aurrez aurre neri kontautakuak biltzen dittu gehixenbat. Euskeraz kontautakuak eta eskuz jasotakuak dan-danak. Gero erderaz idatzitta, hori bai, ez nebalako sekula uste izan justua izan leikianik Miguelek berak iñoiz irakorri ezin izango zeban libururik idaztia". Hamar urteko tartia eruan detsan lanian errepaso bikaiña egitten detsa txapeldun haundixaren ibilbidiari eta pelotaren inguruko haren eritzixeri. Kapituluka, haren gazte sasoia, irabazittako txapelak, profesional izaeria, bizitza soziala eta omenaldixak, pelotaren inguruko eritzixak eta telebisiñua, prentsa komunikaziñua tratatzen dittu Luis Alberto Aranberrik. Anexuak be badittu Amatiñoren liburuak, txapeldunen kuadrua, hemerotekia, eskuprograma eta bertso eta abestixekin. **Liburua 16 eurotan dago salgai; Zabaltzen da banatzaille ofiziala eta libreruari esanda berak eskatu leikixo. Iraolagoitian, Gisasola estankuan eta Echetto kioskuan badago.**



*Amatiño eta Gallastegi, Pedro Mari Goikoetxearekin, Coliseuan egindako liburuaren aurkezpenian.* Silbia Hernandez

nero. Aizkoriarekin be, 15 miñutu egitten zittuan egunero, eskuak gogortzeko. Kalamuara juateko zaletasuna be euki eban, entrenamenduetan partiduan baiño gehixago nekatzeraiño. Lehelengo hiru-lau tantuetan ekan punturik ahulena, izerdixa botatzen hasi arte.



kirol kitto!
Eibarko astekaria
EIBARKO KIROL SARIEK orain dela 50 urteko finala gogoratu zuten
EUKi
Ifar-Kale 1
T. Etxebarria 1




*2001ian, Gallastegiren eta Akarregiren arteko finala jokatu zala 50 urte betetzen ziranian, Eibarko Kirol Sarixen sari berezixa eurak bixendako izan zan. Gure rebistaren azala eta sarituena horren lekuko.*

Berarendako partidurik onena: Eibarren Zurdo de Mondragoni 22-16 irabazi zetsanian. Eta baitta Akarregiren aurka 1948-xan jokatutakua. Txapelketak errez irabaztiaz gain, Madrillen, Bartzelonan eta Frantzian jokatzen zittuan partiduak. Iparraldera gustora juaten zan, aurreko frontixan bakarrik jokatzera.

Aurreko datuak berak guri emon zeskun alkarrizketa batekuak dira. Miguelek jarraitzen dau frontoira juaten eta Astelenan be behin baiño gehixago egin geinkeu topo berarekin.

Centro de fisioterapia
Manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



## MIKEL MARKEZ *(abeslaria)*

# "Euskal kantagintza *impasse* egoeran dago"

*Urtarrilaren 17an, 20.30etan "Indar bat dabil hor" lan berria aurkeztuko du Mikel Markez kantariak Coliseoan. Taula gainean berarekin batera Arkaitz Miner (gitarra akustikoa, mandolina, biolina), Satxa Soriazu (pianoa eta teklatua) eta Amaiaur Cajaravillek (kontrabaxua) jardungo dute. Sarrerak 8 euro balio du eta aldez aurretik zein egunean bertan erosteko aukera izango da.*

***- Nolakoa da zure lan berria?***

Azken denboraldiko kantuen bilduma da. Badu nahikoa kantautoretik, eta baita bertsolaritzatik, Xabier Amuriza eta Uxue Alberdiren bertsoak dauzkan aldetik. Badauka zerbait literaturatik ere, Harkaitz Canoren poema dago-eta. Jack Warshaw-k 40ko hamarkadan idatzitako "No time for love" abestiaren bertsioa ere egin dut. Batzuetan abesti batzuk lo zorroan egoten dira boladaka, aipatutako abesti honen kasuan lez. 70eko hamarkadan beste bertsio bat egin zuten Irlandan; Euskal Herrian, berriz, Hertzainak taldeak gauza bera egin zuen, Amurizaren hitzekin.

***- Eta zergatik erabaki duzu horren bertsioa orain egitea?***

Batetik, entzule modura betidanik izan dut horrelako harreman berezia abestiarekin. Bestetik, aipatzen den gaiak ez du gaurkotasunik galdu: mundu guztiko indar armatuek betidanik izan dute ateak behera botata gauez etxeetan sartzeko "ohitura" hori eta abestia horren lekukotasun ona izango zela pentsatu nuen. Abestia Euskal Herrira ekartzeko "errudunak" Josu Zabala eta Xabier Amuriza izan zirenez, eurekin berba egin eta hitzak eta pertsonaiak gaurkotuta bertsioa grabatu dut.

***- Bestela ere, grabazioan lagun asko izan dituzu aldamenean: Aire Ahizpak, Alaitz Telletxea, Andrea Bidart, Benito Lertxundi...***

Euskal Herri txiki honek duen abantailetako bat gertutasuna da, beti izaten dira kolaboratzeko aukerak. Kasu honetan, aldamenean izan ditudan lagunak kantuak ondu egiten dutelako aukeratu ditut. Horrekin batera, elkarlana zorrak kitatzeko modua ere izan daiteke, ni eurekin batera jardun izan naiz-eta.

***- Hamargarren diskoa, urte mordoa kantagintzan. Nola ikusten duzu euskal kantagintza gaur egun?***

"In pass" egoera batean gaudela esango nuke. Ez dago oso argi zer etorriko zaigun: disko berriak ateratzen jarraituko dugun, formatuekin zer gertatuko den... adi gaude etorriko denari zelan egokitu. Sasoi batean kantariek eta abestiek holako prestigio modukoa zuten, baina gaur egun, zoritxarrez, kantariak kontsumorako produktu bihurtu dira. Hala ere, hamaika arrazoirengatik, hemen oraindik ere utopia puntu bat badago. Agian erreferente izango den Ez Dok Hamairu berri baten beharra somatzen dut.

# Maria Romeroren erakusketa amaitzear



**Maria Romero Laspiur eibartar gaztearen margolanak zein jantzietarako diseinuak domekara arte** egongo dira ikusgai Portaleko erakusketa aretoan. Arte Ederrak ikasi dituen artistaren margoetan giza irudia nagusi da, baina, horrekin batera, Marina Agirrerekin batera Aittu proiektuan dihardu buru belarri beharrean eta diseinuetarako estanpatuak eta bestelakoak ere ikusgai ipini ditu Portaleko erakusketa aretoan.



# Umeendako antzezlana

**Urtarrilaren 18an "Beldartxo Jatuna" umeendako antzezlana eskainiko du Didau Antzerki Faktoriak** 17.00etan Coliseo antzokian (sarrerak 5 euro). Ikuskizunak, aktore, txotxongilo eta musikaren bidez bizitzaren prosezua kontatzen du eta, diotenez, "horri esker, haur txikiek bizitzaren eboluzioa ikusiko dute, antzerkiak beti eransten duen magia puntu batekin".



# Otsailean ere Harixa Emoten

**Martitzenean Juan San Martin Liburutegian Harixa Emoten literatura-tertulia egin zuten.** Oraingoan Jokin Muñozen "Antzararen bidea" lanari buruz jardun zuten eta, egilea bertan egoteko aukerarik ez izan arren, ederto atera zioten mamia Antxon Narbaizaren laguntzarekin. Martxoko saioan Oihan Vegaren "Euskararen espektakulue" lanari buruz jardungo dute irakurketa klubekoek.

# Beherapenak ikuskizunetan

**Coliseo antzokian, Astelena frontoian eta Ipurua kiroldegian** izango diren ikuskizunetarako sarreretan beherapenak egingo dituzte: bost eurotik gorakoetan euro biko beherapena izango dute Gazte Txartela, langabetu txartela edo ikasle txartela aurkezten dutenek. Aditzera eman dutenez, egiaztatze-agiria beharrezkoa izango da sarrerak eskuratzeko eta baita ikuskizunera sartzeko ere.

# Eibarko Kantuzaleak-en saioak

**Eibarko Kantuzaleak abesbatzak hainbat irteera berezi egin ditu** azken asteotan: abenduaren 15ean Donostian egon ziren 55 urtetik gorakoendako topaketan: Josu Elberdinekin entsegua egin eta topaketan batutako 90 bat lagunekin bazkaldu eta gero, 20.30etan kaputxinoen elizan emanaldia eskaini zuten. Handik egun batzutara, abenduaren 22an Elgetan abestu zuten eta, abenduaren 24an, berriz, horretarako aukera izan zutenek Olentzerori lagundu zioten. Maria Jesus Agirrek zuzendutako abesbatza nahi duen guztiarentzat ateak zabalik dituela gogorarazi nahi dute, *"ia gizonak bat egiten animatzen diren"*. Entseguak eguaztenetan izaten dira, San Andres elizako lokaletan 19.00etatik 20.00etara. Informazio gehiagorako 943201294 telefono zenbakira deitu daiteke.



*Josu Elberdinekin egin zuten entsegua Donostian, kaputxinoen elizan emanaldia eskaini aurretik.*

# Bertso saioa Akara tabernan

**Datorren urtarrilaren 17an, barixakuan, bertso saioa egingo dute** Akara tabernan 23.00etan. Saioan Hankamotxak bertso eskolako lau bertsolarik jardungo dute: Jokin Bergara, Jon Mikel Mujika eta Aimar Goenaga eibartarrek eta Manu Goiogana irundarrak. Eurekin batera, Nerea Ibarzabal markinarra ere arituko da bertsotan. Gai-jartzailea Ion Martinez izango da eta, berak azaldu duenez, "ohiko saioekin alderatuz ger desberdin samarra izango da, entzuleak inoiz baino parte hartze handiagoa izango baitu, bertsolariei gaiak emateko laguntza eskatuko dieteta. Beraz, bertsozale oro animatu nahi dut saiora azaldu dadin".



*Hankamotxak bertso eskolakoek beste batzuetan ere jardun dute tabernetan.* Leire Iturbe

## laburrak

### SOSTOAREN OTARRA

**Sostoa abesbatzak Gabonetako kontzertua eta gero zozketatu zuen otarra hori koloreko txarteletan 0734 zenbakia zuen Bergarako Pedro Miguel Arcauzek jaso zuen. Zorionak!**

### KONTZERTUAK EZ DOK-EN

**Zapatu gauean Highlights Arrigorriagako rock taldeak kontzertua emango du Ez Dok tabernan. Urtarrilerako egitaraua osatzeko beste kontzertu bi antolatu dituzte: hilaren 18an Layo Raser (Irun-Mosku) taldeak jardungo du zuzenean eta 21ean King Bee (Madril) taldeak.**




### ANTZEZKIZUN MUSIKALA

**Datorren otsailaren 8an, 17.00etatik aurrera Opera Divertimentok "Caperucita Roja" ikuskizuna eskainiko du Coliseoan. Antzezkizun musikatuak ordubete inguruko iraupena dauka eta familia osoarentzat egokia da. Sarrerak 5 euro balioko du.**

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## euskararen txokoa

### ❍ Hiztunak mutu uzteko estrategiak

"Euskararen kate hautsiak" du izena David Anautek ondu duen mila orriko liburuak. Euskal Memoria fundazioak argitaratu du lana, euskarak mendez mende jasan duen zapalkuntzaren bilduma: apalean gordetzeko horietakoa da. Errepresio bide anitz erabili da historian zehar euskara azpiratzeko, hiztunek hizkuntzari izkina egitea lortzeko, euskaldunak mutu lagatzeko. Zapalkuntzaren lekukoak eta estrategiak kontatzeaz gain, herritarrek haiei aurre nola egin dieten ere azaldu du egileak. Gertatutakoa ez errepikatzeko eta ez ahazteko asmoz argitaratu da lana.

### ❍ Dimisioak Euskaltzaindian

Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 3a, aukeratu zuen Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak albiste iluna emateko. Pello Salaburu zen batzorde horren arduradun eta, haren esanetan, erakundearen barruan kudeaketa ereduarekin ados jartzen ez diren egituratu gabeko bi talde daude. Gramatika batzordeak zazpi liburuko gramatika proiektua aurkeztu berri du eta Euskaltzaindiak hiru liburuko lana nahiago zuen. Salabururen lantalde osoak dimitu ondoren, Ibon Sarasolak Hiztegi Batuaren ardura laga du, bere ustez dimisio hori "azken tanta" izan delako.




## Argazkiak tabernetan

**Klub Deportibo Argazki Taldeak antolatuta**, urtarrilaren 31ra arte argazki erakusketa bi ikusteko aukera izango da tabernetan: Klub Deportiboan Jesus Botaroren argazkiak ikus daitezke eta Portaleko Tabernan, berriz, Fernando Retolazaren Patagoniako irudiak.

## Zapatuetako tailerretako izen-ematea



**Urtarrilaren 13tik 17ra Zapatuetako Tailerretan izena emateko aukera izango da.** Sukaldaritza tailerra Haur Hezkuntzako 3. mailako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat izango da eta 10 euro balio du (izen-ematea ikastetxean bertan egin beharko da). Hip-hop ikastaroa, berriz, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat antolatu dute eta interesa dutenek Pegorara jo beharko dute izena emateko. Eta maketak eratzeko tailerra Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat izango da eta izen-emateak 10 euro balio du (eskoletan eman beharko da izena).







## Bergarako artisten margolanak Portalean

**Gaur inauguratuko dute erakusketa Portalean BEART Bergarako Arte Elkartekoek.** Otsailaren 16ra arte ikusgai egongo den erakusketan elkarte horretako artisten margolanak ikusteko aukera izango da, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

## Esther Galarzaren akuarelak

**Hilaren amaiera arte Esther Galarza Berasueta** artista eibartarraren akuarela erakusketa hartuko du Julian Etxeberria kaleko El Ambigu tabernak.

Olabarria AUTOBUSAK
BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK
Besaide, 11. ELORRIO
Faxa. 94 - 623 16 47
Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar)
94 - 623 16 47 (bulegoa)



BODEGA VINAGRE
Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Egunero 07.00etatik zabalik
Asteburuetan 10.00etatik aurrera

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, ANER, gure etxeko txapelduna, martitzenian hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, JON, potxolo, abenduaren 29xan hiru urte bete zenduazen-eta. Patxo potolua famelixaren partez.


Ongi etorri, NAHIA, abenduaren 29ttik gure artian zagoz-eta. Zorionak aitatxo Gaizka eta amatxo Enarari.


Zorionak, tia IHINTZA, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat Ekhi, Eñaut eta Koikilliren partez.


Zorionak, IRADI, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko printzesarentzat.


Zorionak, IRAIA, gure neska haundixak hillaren 4an 10 urte egin zittuan-eta. Milla muxu famelixa guztiaren partez.


Zorionak, MAIALEN, hillaren 3an bi urtetxo egin dozuz-eta. Muxu haundi-haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, XABIER Berasategi Sologaistua, martitzenian zazpi urte egin zenduazen-eta. Etxekuen partez.


Zorionak, JON, martitzenian zortzi urte bete zenduazen-eta. Segi holan irrifartsu. Muxu potolo bat etxekuen partez.


Zorionak, GARAZI Alkorta, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, MARKELtxo!, hillaren 8xan bi urte bete dozuz-eta, mutil haundi. Muxu haundi bat famelixaren partez. Segi holan, maittia!


Ongi etorri, IÑAKI Treviño Vega, hillaren 8ttik gure artian zagoz-eta. Hau bai opari galanta! Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, BEÑAT, hillaren 2xan bederatzi urte egin zenduazelako. Gurasuen partez.


Zorionak, GORKA eta EKHI, hillaren 8xan eta 3an urtiak bete dozuez-eta. Patxuak etxekuen eta, batez be, Eñauten partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**11n:** 17.00, 19.45, 22.30
**12an:** 17.00, 20.00
**13an:** 20.30

### "De tal padre, tal hijo"
*Zuzendaria:* Hirokazu Kore




**(2 ARETOAN)**
**11n:** 17.00, 19.45, 22.30
**12an:** 17.00, 20.00
**13an:** 20.30

### "Sobran las palabras"
*Zuzendaria:* Nicole Holofcener




**(ANTZOKIAN)**
**11n:** 19.45, 22.30
**12an:** 20.00
**13an:** 20.30

### "La leyenda del samurai"
*Zuzendaria:* Carl Rinsch




**(ANTZOKIAN)**
**11n:** 17.00
**12an:** 17.00

### "Lluvia de albóndigas 2"
*Zuzendaria:* Cody Cameron



# ZAPATUA 11

## HAUR PARKEA

**11.00/14.00 eta 17.00/20.30.** Bi eta hamabi urte bitarteko umeentzat. Astelena frontoian.

## AUTOBUSA

**16.00.** *"Tantaz Tanta itsasoa gara"* manifestaziora Bilbora joateko autobusa. Ego Gainen.

## KIROLA FAMILIAN

**17.30/19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasateko gunea. Ipurua Kiroldegian.

## ZINEA

**17.30.** *"Gru 2. Mi villano favorito"* filmaren emanaldia. El Corte Inglesean.

# DOMEKA 12

## BATZARRA

**11.30.** Kantabriako Etxeko bazkideen urteko batzarra. Jardiñetako egoitzan.

# ASTELEHENA 13

## IKASTEN

**10.00.** *"Mirando al cielo"* (astronomia). Beheko Tokian.

## IKASTEN

**16.00.** Sendabelarren foroa: Erratza eta mihura. Portalean.

# MARTITZENA 14

## IKASTEN

**10.00.** Laburmetraiak: Errasti Memoriala. Hezkuntza Esparruan.




## BATZARRA

**19.00.** Batzar irekia: *"Parte hartze prozesua"*. Portaleko ikastari gelan.

# EGUAZTENA 15

## IKASTEN

**10.11.** Mendi ibilaldia: Atxuri-Zorrozaurre. Trenaren irteera, Estaziñoan (Ardantzan 10.12etan).

## HITZALDIA

**19.00.** *"La patente: herramienta para la innovación"*, Gonzalo Sanabriaren eskutik.

## EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

# EGUENA 16

## IKASTEN

**10.00.** Hitzaldia: Neguko jaiak. Oier Araolazaren eskutik. Armeria Eskolan.



## KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## hildakoak

- **Francisca Oñederra Egaña.** 94 urte. 2013-XII-27.
- **Enrique Orbea Soroa.** 54 urte. 2013-XII-29.
- **Mª Dominga Arrillaga Garate.** 90 urte. 2013-XII-29.
- **Eli Olalde Elortegi.** 92 urte. 2013-XII-29.
- **Lorenzo Gorospe Kortaberria.** 64 urte. 2013-XII-30.
- **Belen Ortiz de Zarate Trueba.** 69 urte. 2014-I-1.
- **Iñaki Garaizabal Elkoro.** 89 urte. 2014-I-2.
- **Jose Mª Murua Elguren.** 56 urte. 2014-I-3.
- **Josefa Oruesagasti Gurrutxaga.** 77 urte. 2014-I-3.
- **Estefania Mendibe Sagastobeitia.** 80 urte. 2014-I-4.
- **Victoria Aranzabal Mendizabal.** 80 urte. 2014-I-5.
- **Miguel Angel Hurtado Ordas.** 59 urte. 2014-I-5.
- **Jacinto Astigarraga Carral.** 90 urte. 2014-I-6.
- **Felisa Basauri Arteaga.** 86 urte. 2014-I-6.
- **Esperanza Alcalde Serrano.** 87 urte. 2014-I-7.
- **Miguel Blanco Corral.** 68 urte. 2014-I-7.
- **Victoria Garitaonandia Urizar.** 87 urte. 2014-I-8.
- **Mª Angeles Estevez Iglesias.** 89 urte. 2014-I-8.
- **Jose Arriaga Urkidi.** 92 urte. 2014-I-8.

## jaiotakoak

- **Assil Er Raghay.** 2013-XII-23.
- **Maren Kortazar Romero.** 2013-XII-24.
- **Maria Rodriguez Fernandez.** 2013-XII-24.
- **Erlaitz Palma Lopes.** 2013-XII-27.
- **Zineb El Hnassfi.** 2013-XII-27.
- **Nahia Hernandez Lopez.** 2013-XII-29.
- **Yousra Malek Malki.** 2013-XII-31.
- **Maite Salazar Onaindia.** 2014-I-2.

# HOROSKOPOA

**ARIES**
Txipa erabat aldatu duzu urte berriarekin. Gauza beste modu batera ikusten dituzu eta horrek egunerokoan lagunduko dizu.

**TAURUS**
Gabonetan hartutako kiloekin zer? Soberan ez dituzu, baina lehengo gorputz liraina berreskuratzeko... ariketak egin beharko!

**GEMINI**
Oraindik falta da, baina hasi pentsatzen Aratosteetan nola jantzi. Azken orduan zabiltza beti; ea oraingoan ez den horrela.

**CANCER**
Tenperatura gorabeheren aurrean, ondo tapatu eztarria. Gaixotzeko aukerak ez dira gutxi: ez zabiltza sasoirik onenean.

**LEO**
Besteen laguntza jasoko duzu momentu txarrenetan. Ezer esan barik ere, zure aurpegiak barruko tristura islatzen du.

**VIRGO**
Olentzerok ez badizu nahi zenuena ekarri, badakizu: datorren urtean hobeto portatu. Ikatza ez zegoen hain txarra, ezta?

**LIBRA**
Besteekiko harremanean jarrera aldatu duzu: gozoagoa zara, jendeak eskertzen du. Baina, arren, ez zaitez gozoegia izan.

**SCORPIUS**
Kontuz zer jaten duzun, aukera handia duzu-eta beherakoa izateko. Ez duzu egun osoa komunean igaro nahi, ezta?

**SAGITTARIUS**
Betebehar guztiak sasoiz egingo dituzu eta atsedenerako denbora gehiago izango. Ondo aprobetxatu aisirako denbora hori.

**CAPRICORNIUS**
Urte hasieran gauza onak besterik ez zaizkizu gertatu; ezin zara kexatu. Sasoi positiboa luzatzen saiatu zaitez.

**AQUARIUS**
Zenbat jan eta edan Gabonetan! Gauza da zure gorputza erritmo horretara ohitu dela. Ea nola ematen diozun buelta!

**PISCIS**
Elurra egiten duenean pozez zoratzen ipintzen zara, baina iritziz aldatuko duzu gertatuko zaizunarekin. Kontuz, irrist!

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Urtarrilaren 12ra arte**

***MARIA ROMERO LASPIURREN*** margo erakusketa. *Portalean.*

✔ **Urtarrilaren 31ra arte**

***ESTHER GALARZAREN*** akuarela erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

***FERNANDO RETOLAZAREN*** "Patagonia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

***JESUS BOTAROREN*** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✔ **Otsailaren 16ra arte**

***BEART*** Bergarako Arte Elkartekoen erakusketa. *Portalean.*

## lehiaketak

✔ **Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa: ***urtarrilaren 22ra arte***, Pegoran.

## ikastaroak

✔ **Tailerra Casanellan (J. Gisasola, 16)**

"La aventura de comprar instrumentos" ***urtarrilaren 17an, 19.00etan***. Izena ematea: urtarrilaren 15era arte (661950710). Plaza mugatuak.

## farmaziak

✔ **barixakua 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **zapatua 11**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **domeka 12**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **astelehena 13**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **martitzena 14**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **eguaztena 15**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **eguena 16**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **barixakua 17**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**2014 urte osorako**

GAUEZ

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5 | | 9 | | | | 6 | |
| | 3 | | | | 7 | | | |
| 7 | | 8 | | | | 4 | | 5 |
| | | | | 2 | | 1 | | 6 |
| | | | 7 | | 3 | | | |
| 5 | | 7 | | 8 | | | | |
| 6 | | 1 | | | | 9 | | 7 |
| | | | 8 | | | | 3 | |
| | 2 | | | | 5 | | 1 | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 7 | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | 8 | 6 |
| 3 | 1 | 2 | 8 | 5 | 6 | 4 | 9 | 7 |
| 8 | 6 | 4 | 1 | 9 | 7 | 3 | 5 | 2 |
| 2 | 4 | 1 | 6 | 8 | 9 | 7 | 3 | 5 |
| 5 | 3 | 6 | 7 | 2 | 4 | 8 | 1 | 9 |
| 7 | 8 | 9 | 5 | 1 | 3 | 2 | 6 | 4 |
| 4 | 2 | 3 | 9 | 6 | 1 | 5 | 7 | 8 |
| 6 | 5 | 7 | 3 | 4 | 8 | 9 | 2 | 1 |
| 1 | 9 | 8 | 2 | 7 | 5 | 6 | 4 | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 4 | 5 | 7 | 9 | 2 | 3 | 1 | 6 |
| 3 | 6 | 9 | 4 | 1 | 8 | 2 | 5 | 7 |
| 2 | 1 | 7 | 6 | 5 | 3 | 4 | 8 | 9 |
| 5 | 9 | 3 | 2 | 8 | 4 | 6 | 7 | 1 |
| 7 | 8 | 6 | 5 | 3 | 1 | 9 | 2 | 4 |
| 4 | 2 | 1 | 9 | 7 | 6 | 8 | 3 | 5 |
| 9 | 3 | 4 | 1 | 2 | 5 | 7 | 6 | 8 |
| 6 | 5 | 8 | 3 | 4 | 7 | 1 | 9 | 2 |
| 1 | 7 | 2 | 8 | 6 | 9 | 5 | 4 | 3 |

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora ............................*010*
Udaletxea ..........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa ..........*943 82 01 10*
KIUB ................*943 20 38 43*
Epaitegia ...........*943 03 34 00*
Iberdrola ...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria ...*943 22 22 22*
Mendaro osp.......*943 03 28 00*
Anbulategia .......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza ..........*943 53 17 00*
Eusko Tren ........*902 54 32 10*
Pesa.................*902 10 12 10*
Taxiak ..............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# etakitto.iragarkilaburrak.com

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 60 $m^2$. Berogailu urdina, berriztuta. Teilatu berria. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. 69.000 euro. Deitu 18.30etatik aurrera. Tel. 617-207672.

### 1.2. Errentan

– Pisu bi alokagai Arrate-Biden: 3 gelakoa bata eta 2koa bestea. Tel. 645-728317 eta 617-631575.
– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Presa dut. Hilean 450-500 euro ordainduko nuke. Tel. 632-569245 eta 673-271449.
– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
– Pisua konpartituko nuke Eibarren. 250 euro ordainduko nituzke hilean. Tel. 660-833346.
– Pisua alokagai Barakaldo kalean. Berriztua. 5. pisuan. Tel. 653-733457.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.500 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidean, kuadrilendako egokia. 20 $m^2$. Tel. 681-303507. Oier.
– Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
– Garaje itxia alokagai Txomon. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
– Taberna alokagai Ipuruan. Tel. 651-007411 eta 658-595764.
– Garajea alokagai Ipuruako San Pion. Sarbide erraza. Tel. 669-931925.
– Lokala partekatuko nuke Isasi kalean. 180 euro. Tel. 620-608065.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
**2. MOTORRA**
2.1. Salgai
**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan
**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 636-419814.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 602-828336.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo laguntzeko arratsaldez. Tel. 636-841158.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 653-700969.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta beste lanetarako. Tel. 686-077316.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 636-976515.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-888142.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-280304.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 636-841158 eta 600-332954.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-053696.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-863019.
– Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko goizez. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko eta garbiketetan jarduteko. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko, ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 631-488692.
– Gizona eskaintzen da baserriak zaintzeko eta gidari eta sukaldari moduan jarduteko. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 633-229985.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 664-009684.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 634-005760 eta 603-221649.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 681-374525.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko: etxeak, bulegoak, txokoak... Tel. 600-332954.
– Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 8 urteko esperientzia. Externa. Tel. 638-230954.

### 4.2. Langile bila

– Garbitzailea eta sukaldaria behar dira jatetxe baterako, asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a eta argazkia. Eibarko 46. postakutxa.
– Ileapaintzailea behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254776.
– Garbitzailea behar da taberna batean asteburuetarako. Tel. 943-257741.
– Emakume euskalduna behar da nagusia zaindu eta garbiketetarako. Tel. 943-207149.
– Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko jatetxe batean. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a 46 postakutxatilara.
– Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a davidtubolab@gmail.com helbidera.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Neska euskalduna eskaintzen da klaseak emateko. DBH eta Batxilergoko ikasgai zientifiko-teknikoak ematen esperientzia. Bakarka edo talde txikiak. Tel. 615-704540.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Hiru plazako sofa salgai. 2,00x0,85 metro. Salmoi kolorekoa, bi urte erabilita. 100 euro. Tel. 660-805301. Miriam.
– Somierra salgai. 1,35 metrokoa, hankekin, gehi gaueko mahaitxo bi. Wengue kolorekoa, urtebete erabilita. 80 euro. Tel. 660-805301. Miriam.
– Snow taula salgai. Burton Seren, eginberriko hertzekin. 1,68 m. Fijazioak opari. 140 euro. Tel. 679-867543.
– Hiru plazadun sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 943-043008.
– Vaporetto Polti salgai. 230w potentziakoa, 2.250w galdara-potentzia. Tel. 943-202042.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen abenduaren 22an Zuloagatarren eta T. Etxebarria inguruan. Tel. 658-719676.




iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

emaiozu euskarari

ikasturtea
13/14
matrikula zabalik

# Matrikula Zabalik




## URTARRILAREN 7 tik aurrera

ESKAINTZA

- Maila guztiak (4. maila barne)
- Goizeko 08.30etatik iluntzeko 21.00ak arte
- Azterketetarako prestakuntza (HABE, EGA, IVAP, Osakidetza...)
- Aurrez aurre zein on-line (BOGA)
- Tarifa bereziak

ETORRI ETA GALDETU!!!

udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak

2013-2014 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABA-
*Udal Euskaltegian* www.udaleuskaltegiak.net

EibarkoUdalaketaHABEkdiruzlagundutakozentroa (TARIFA BEREZIAK)

Tfnoa: 943 70 09 12
euskaltegiaeibar@telefonica.net Faxa: 943 82 00 89 **Bista Eder 10 -PORTALEA-**






# FISIOTERAPIA
## ZENTRUA
### Ane Mendia
970 kol. zkia.

Indiva terapia
Kirol lesioak
Masajeak
Tendinitisak
Bizkarreko minak
Esginzeak
Etxez-etxeko zerbitzua




Arragueta, 20 - behea 943 530642



UNBE

ORBEA























ZORIONAK!
eta
2014.
URTE
kirolari
ON!

Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar